## Haur Hezkuntza

Maila honetan irakurzaletasunaren hastapenak ezartzen dira. Egunero egiten duzuen lanarekin liburuarekiko atxikimendua lortzeko bidea ezartzen duzue eta haurraren egunerokoratasunean liburua sartzen da ikasgelatan. Bai etxean zein ikastetxean haurrak liburua objektu gida ukitu, usaindu eta erabili behar ditu.

Maila honetarako ipuin kontaketak proposatuko dizkizuegu

Egokitutako kontalariaren arabera, aurretik liburu jakin bat landuko da ala ez. Batera edo bestera izan, kontuan izan ikasle kopurua ahalik eta txikiena izatea gomendatzen da, eta bereziki prestatu “txoko” bat egun horretarako.

Amaitzean eta hurrengo egunetan kontalariak erabilitako ipuin, pertsonaia eta esaldiak gogora ekarri daitezke ikasleek errepika dezaten. Hartara, narrazioaren lenguajean sartuko ditugu euskal doinua landuko ditugu, besteak beste.

Prestatu dugun eskaintzaren ezaugarria profesionaltasuna litzateke. Honako guztiak dute eskarmentu handia ipioj kontaketa saioetan eta aritu dira aurretik ere egitasmoan. Guztiek dute eskarmentu eta jaso dituzte balorazio onak.

*Egia bada sakelan sar. Gezurra bada, ez golkoan har.*